# SASKIBALOIA ARAUDIA 2015-2016

| | BENJAMINAK LH3-4 | ALEBINAK LH5-6 |
|---|---|---|
| **JOKALARI KOPURUA** | 4 jokalari | 4 jokalari |
| **ALDAKETAK** | Aldaketak atsedenaldietan bakarrik egingo dira, jokalariren batek min hartuz gero izan ezik. Kasu hauetan, gutxien jokatu duen jokalaria sartuko da, baina ez da aktan apuntatuko. | |
| **JOKA DAITEZKEEN ZATI KOPURUAK** | Gehien eta gutxien jokatu duten jokalarien artean, gehienez zati baten aldea egon daiteke, (luzapenak barne). *Adibidez, taldekideren batek 6 zatiak jokatu baldin baditu, beste guztiek 5 zati jokatu behar dituzte.* | |
| **IRAUPENA** | 7 minutuko 6 zati. (7 x 6) | |
| **ATSEDENALDIAK** | Minutu 1 | |
| **SAKEAK** | Hasierako sakea salto da. Saskiraketen ondoren sakeak saskiaren behealdetik aterako dira. Partiduaren azken minutuan sakeak erasoko zelaian izango dira. | |
| **PARTIDUKO AZKEN EMAITZA** | Saskiraketa kopuruen arabera. Berdinketak onartu egiten dira. Ez da hiruko punturik emango. | Saskiraketa kopuruaren arabera. Berdinketa dagoen kasuetan, 4 minutuko zatiak jokatuko dira, irabazlea egon arte. (*Luzapenean aktan agertzen diren jokalariek jokatutako zati kopuruak kontutan izan behar dira).* Ez da hiruko punturik emango. |
| **DEFENTSA** | Onartutako defentsa bakarra indibiduala da. Edozein modutan jokoa eten ondoren (saskiratzea, faltak,baloia zelaitik irtetea…), defentsa norberaren zelaian hasiko da. | |
| **FALTAK** | Faltak **ASKO** pitatuko dira, falta egiteko ohitura mozte aldera. Falta bakoitzeko ez da tiro libre bat ahalbidetuko. Zati bakoitzeko, **seigarren** faltatik aurrera, tiro libre bat jaurtitzeko aukera ahalbidetuko zaie, erreboterik gabe eta baloi jabetza emanaz. Jaurtiketa librea kanasta azpitik 4 pausotara botako da. | Faltak **ASKO** pitatuko dira, falta egiteko ohitura mozte aldera. Falta bakoitzeko ez da tiro libre bat ahalbidetuko. Zati bakoitzeko, **laugarren** faltatik aurrera, tiro libre bat jaurtitzeko aukera ahalbidetuko zaie, erreboterik gabe eta baloi jabetza emanaz. |
| **ZIGORRAK** | Jokalari batek 5 falta egiten baditu, kaleratua izango da eta bere ordez, ordurarte gutxien jokatu duen jokalaria sartuko da *(aktan ez da apuntatuko).* Kiroltasunik gabeko falta denean, jaurtiketa librea eta baloi jabetza ahalbidetuko zaizkio aurkariari. | |
| **TXAPELKETA MODUA** | Ez dago txapelketarik | Txapelketako irabazlea, kanporaketa bidez erabakiko da, final erdi eta finalekin. |